

Euskalerria atzerritarren begietan



GUILLERMO HUMBOLT jaunak diño:

“Iñoiz ikusi ditudan errialde artean, Euskal. Erria da bakarrik kultura, jakintza eta zuzenbide errikoi-errikoiak dituen erria.

Goi beeko gizarte maillak alkarrengandik etenik gabe urbil dituen. Goikoen argiaz beekoak baliatuz eta alderantziz, beekoen jatorrasuna, zintzotasuna eta zuur zentzua goikoek onartua.

Beste au diño, barriz, Ingalaterrako Bowles jakintsu jaunak: Euskal Errian barna nembilerarik, Homerok adierazten dauan moduan, aro eta oitura giro barruan nengoela iruditzen jatan. Benetako xalotasuna, kemena eta alaitasuna ikusi eta bizi nai dituanak, ango mendialde aretan aurkituko ditu ziurtasunez, eta zalantzarik barik.

Baita ezagutu eta ezagutuko dau ango jendea, aberatza izan ez arren, ondo baño obeto bizi dala, eta ez dagoela iñoren eta iñungo aundikiren menpean”.



ORTEGA GASSET jaunak

Esandako berba ederrak: "Zerutiar eta lurtar sargardo pitxarrarekin naasten ditu euskaldunak bere otoitzak eta dantza zoragarriak eta baita be ospatzen dituan elizkizunak. Ez dago España guztian, emen bezelako lur landurik, ez eta errixka garbiagorik, eta iri ederragorik

Aurrerapen guztiei lotuta, elizbide eta gizabideari, era berean, sendo lotu eta eutsirik. Ez dot nik ezagutzen erri au baizen zintzo eta zuzenik, ez eta Europa guztian beste errialde bat onen antzekorik. Aurpegiz eta arimaz zorrotz, giza landareak mundu onetan emondako kimu eta ernamuin ederrenetari-koa da, benetan, Euskalduna”



INGLATERRAKO RONEY GALLOP jaunak

Esandakoa: "Asmoz eta egitez, garbi eta zuzen, gizamotarik ederrena dozu Euskalduna. Erri jator onetan ikusi, aztertu eta begiratu daikezuz, beste errialdetan galduta dagozan giza-baliagarriak, bizibideak eta oiturak."



GURE ONDARE GORAGARRIA.

Ontzat artzen ditugu Euskaldunen alde atzerritarren esaerak eta iritziak. Baña ikusi dagigun Euskaldunak gure onerako egin ditugun jokaldiak. Oñatiko Unibersitatea Rodrigo Saez de Mercado Zuazola gotzainak, oñatiarra, sorturikoa 1540 urtean. Ikastegi onetan, millaka gazteak ikasi eta bizi egin ebezan Kristau fedean eta gizarte bizibidean ondasunik goragarrienak Auxe da ondare ederrena.

Jatorriz datorkigu Euskaldunai gizakiaren jatorrasuna, gaitasuna eta ganora. Orrez gain gure gurasoek euren semeak Europako ikastetxe nagusietara bialtzen zituen jakintzaz distiratzeko Eta etxe barruetan alegintzen ziran bertoko oiturak zuzentzeko ta gozatzeko, alperkeria, ezjakintza eta galbide guztiak uxatzeko. Baita be erriaren urratsak aurkitu eta aztertu gizartearen aurrerapena eratu eta eraginkor egiteko. Bai, gure gazteek ez ziran Gaztelara joan lan billa bakarrik. Baziran Ikastetxe nagusietara joaten ziranak, izen aundiko gizonak izateko, erregeen onulari, eta aberriaren gidari zoragarriak.

Gaur egun izen aundiko Euskalerrian zintzo ausnartu bear dogu zer eta zelako sustraiak eta jatorrizko balio-tasanak galdu doguzan, eta danok bat eginda, gure izen ona goiko maillan jarri gizadi osoaren aurrean. Beti gora Kristau fedean eta Euskal bizibidean.

Urighen tar Zenon

Pasiotarra

